

ZALDIBIA HERRIGINTZAN eta partaidetza prozesua

Idazki honen bidez Zaldibia Herrigintzan udal taldeak bere iritzia eman nahi du-herriko hainbat ekimen aztertzeko egin den partaidetza prozesuaren gainean.

Alkatearen eskutik proposatu zitzaigun partaidetza prozesua martxan jartzea eta horretarako 6 hilabetez aritu ginen prozesua martxan jartzeko hausnarketa saioetan lanean, gure kandidaturako bi zinegotzien bidez. Gero Aztiker enpresa kontratatzea erabaki zen prozesuaren dinamizatzaile gisa. Hor erabaki genuen talde eragile bat izendatzea, aztertu beharreko gaien inguruan eztabaidatu eta emaitza batzuk planteatzeko.

- a) Talde eragilea izendatzerakoan, Udalan parte hartzen dugun bi taldeen artean partaidetza prozesuaren bultzatzaileak izango ziren herritarrak adostu genituen, pertsona bakoitzaren izen-abizenak zehaztuta.
- b) Lehenengo saioan lan-plana aurkeztu ondoren, lanaren joan-etorrian, zenbait proposamen taldetik kanpo landuta zeudela eta gure iritzia ez zela aintzat hartzen konturatu ginen. Erabaki asko taldeak adostu aurretik hartuta zeudela, alegia.
- c) Lanaren eboluzioa aurkezteko herritarren aurrean egin zen bileran, talde eragileak egindako lana ez zuten talde eragileko kideek egin, prozesuaren gidari izan den Aztiker enpresako kideak baizik. Bilera horretan parte hartu zuen jende asko ez zen bat etorri talde eragileko emaitzekin.

d) Talde eragilearen hurrengo bileran, guk aurretik ezer jakin gabe talde eragilea handitzea erabaki zen. Partaidetza zabaltzeko prozedura ez zitzaigun ondo iruditu, hasieran jarritako baldintzak errotik aldatzen zirelako eta ez zitzaigulako hori egiteko inolako arrazoi sendorik eman.

e) Talde eragilearen azken bileran ondorio garbiak atera ziren, baina oso zabalak, 2 edo 3 aukera planteatzen direlako, bai udaletxe berria egiteko, baita estalpea egiteko ere. Eta horregatik gure zalantzak ditugu ondorio horiek nola islatuko dituen arkitektoen proiektu batek, izan ere, ondorio batzuen aldeko oso jarrera ezkorra adierazten delako txostenean, eta beste ondorio batzuen oso aldeko jarrera.

- f) Bukatzeko, jakin dezazuela, Zaldibia Herrigintzan udal taldeak bere hitza beteko duela eta lanean segituko duela azken ondorio horien isla behar bezalako den zaintzerakoan

Eskerrik asko!

Zaldibia Herrigintzan

ZALDIBIA HERRIGINTZAN Y EL PROCESO DE PARTICIPACION CIUDADANA

Mediante este escrito el grupo municipal Zaldibia Herrigintzan desea mostrar su opinión acerca de las iniciativas desarrolladas en el marco del proceso participativo llevado a cabo en el municipio.

Por iniciativa de Alcaldía se nos propuso poner en marcha conjuntamente un proceso participativo , para lo cual dos concejales de nuestra candidatura trabajamos con técnicos de Diputación a fin de poner en marcha dicho proceso. Seguidamente se contrató a la empresa Aztiker para ejercer de dinamizadora del proceso y se elaboró un grupo dinamizador cuyo objetivo era analizar las distintas propuestas y elaborar un documento de conclusiones del proceso.

- a) Los miembros del grupo dinamizador fueron elegidos por ambos grupos municipales en base a distintos criterios como edad, sexo, diversidad ideológica...
- b) Tras presentar en la primera reunión el plan de trabajo, nos dimos cuenta que ciertas propuestas estaban elaboradas de antemano y nuestra opinión no se tomaba en consideración, es decir algunas decisiones ya estaban tomadas antes de las reuniones.
- c) En la reunión de presentación del análisis a la ciudadanía el grupo dinamizador no dió cuenta del mismo, fue la empresa Aztiker la encargada de hacerlo. Mucha gente presente en esa reunión no estaba de acuerdo con los resultados del grupo dinamizador.
- d) En la próxima reunión del grupo dinamizador, se acordó, con asombro nuestro, ampliar el grupo. No nos pareció adecuado el modo de ampliar la participación ya que las condiciones primeras cambiaban sustancialmente y no se nos argumentó acerca de los motivos.
- e) En la última reunión del grupo dinamizador se extrajeron conclusiones muy amplias ya que se plantean 2-3 posibilidades tanto para construir un nuevo ayuntamiento como construir una cubierta. Mostramos nuestra preocupación sobre el modo de plasmar dichas posibilidades en un proyecto arquitectónico , ya que en el informe se expresa una opinión negativa sobre ciertas conclusiones y otra muy favorable sobre otras.
- f) Finalmente queremos señalar que el grupo Zaldibia Herrigintzan continuará en su labor a fin de que dichas conclusiones se reflejen en el documento.

Muchas gracias!

Zaldibia Herrigintzan.